

DBH2 GIZarte: "Hurbildu bainintzen garai berriko leihoetara"  
Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Mapen interpretazio historikoa adierazi, munduaren ikuskera anitza islatzen duten hainbat garaitako mapak aztertuz eta haiek islatzen duten mundu ikuskeraz jabetuz.	<p>1.1. Garaiko ezagutzen eta mapen irudikapenen arteko erlazioak identifikatu ditu.</p> <p>1.2. Maparen sorrera-data eta lekua hautatu eta arrazoitu du.</p> <p>1.3. Mapa historikoen interpretazioan dauden akatsak identifikatu eta zuzendu ditu.</p>
2. Aro Modernoko gertaera nagusiak eskema digital batean adierazi, kausak eta ondorioak identifikatuz edota inferituz eta finkatutako irizpideen arabera sailkatuz eta euren arteko erlazioak ezarriz; horretarako, Iturri ezberdinetako informazioaz baliatuz.	<p>2.1. Aro Modernoko hainbat gertaera eta horien ondorioak erlazionatu ditu.</p> <p>2.2. Aro Modernoko esplorazioen kausak identifikatu eta sailkatu ditu.</p> <p>2.3. Eskema batean adierazi ditu gertaeran kausak.</p>
3. Aro Modernoko pertsonaiei buruz finkatutako irizpideei egokitzen zaien informazioa bilatu eta hautatu, eta biografia- fitxa batean erregistratu, Irakurketa digitala eginez edo esperientzien kontaketaz baliatuz.	3.1. Emandako biografiaren akatsak identifikatu ditu, eremu digitaletan informazioa bilatuz
4. Elkarlaneko zereginetan adostasunera iristeko prozedurak aplikatu.	4.1. Taldean burututako zereginetan, taldearen adostasuna lortzeko egiturak aplikatu ditu.
5. Aro Modernoko gizartearen beharren barruan sortutako erakundeak identifikatu eta erlazionatu eta haien funtzioak adierazi, hainbat euskarritako (animazio, margolan...) informazioaz baliatuz.	<p>5.1. Margolanetan agertzen diren gizataldeen estamentuak identifikatu ditu.</p> <p>5.2. Estamentuen deskribapenak egin ditu, emandako giltza-hitzak erabiliz.</p> <p>5.3. Aro Modernoko gizartearen inguruko akatsak identifikatu eta zuzendu ditu.</p> <p>5.4. Gizartearen beharrak, erakundeak eta horien funtzioak erlazionatu ditu.</p> <p>5.5. Eskatutako aginte moduari buruzko ezaugarriak identifikatu ditu</p>